



TOLOSAKO
UDALA

Aurretzako kontsulta publikoa

Consulta pública previa

**ETXEBIZITZAK ETA BIZITEGI
ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRU
LAGUNTZAK EMATEKO UDAL
ORDENANTZA ARAUTZAILE
BERRIAREN PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE NUEVA ORDENANZA
MUNICIPAL REGULADORA DE LA
CONCESION DE SUBVENCIONES
PARA LA REHABILITACIÓN DE
EDIFICIOS RESIDENCIALES Y
VIVIENDAS**

Aurrekariak

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala.

Honela, lege horren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Honakoa dio artikulua horrek:

«133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.

1. Legearen edo erregelamenduen proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunen webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzirik duten etorkizuneko arauak ukitzeko subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauen helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik (...).*

Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Departamentuak etxebizitzak eta bizitegi

Antecedentes

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, regula en su Título VI la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas.

Así, el artículo 133 de la citada ley establece que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto normativo, debe realizarse una consulta pública. Dicho artículo dice lo siguiente:

«Artículo 133. Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos.

1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) Los objetivos de la norma.*
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias (...).*

El Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios, Medioambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento de Tolosa, plantea la necesidad de



TOLOSAKO
UDALA

eraikinak birgaitzeko diru laguntzak emateko ordenantza arautzailea osatzeko beharra proposatu du.

Legeak ezarritako prozedura betetzeko, alde zuzeneko kontsulta publikoa egingo da, ordenantza onartu aurretik.

Herritarrek, erakundeek eta elkarrekin hala iritziz gero, parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauetako edozein erabilita:

- Helbide elektronikoa honetara bidalita: hirigintza@tolosa.eus
- Udalaren Erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre zein telematikoki (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).

Horretarako, 15 lanegun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ekimenarekin zer arazo konpondu nahi diren.

Proposatutako etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko diru laguntzak emateko ordenantza arautzailearen bitartez, diruz lagundu nahi dira irisgarritasun zein zaharberitze jarduketak. Biek ala biek egiten baitute etxebizitza bat duin eta egoki izatea.

Ordenantza arautzaile berriaren aplikazio eremuan ez da bereizketarik egin nahi. Hori dela eta, aplikazio eremuaren barruan egongo dira Hirigune Historikoan kokatzen diren eraikinak, birgaitzeko beren arautegi propioa duten eremuak eta bi horietan sartzen ez diren gainontzeko guztiak ere.

Hala eta guztiz ere, premiazko ikusten da lehenetsuna ematea Alde Zaharrean kokatutako etxebizitza eta bizitegi eraikinei, batik bat, honako arrazoiengana:

elaborar una Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones para la rehabilitación de edificios residenciales y viviendas.

Para el cumplimiento del procedimiento establecido por la ley, se realizará una consulta pública previa a la aprobación de la ordenanza.

La ciudadanía, instituciones y asociaciones podrán participar y realizar aportaciones a través de cualquiera de las dos vías siguientes:

- Enviando un e-mail a la siguiente dirección: hirigitza@tolosa.eus
- Presentado en el Registro del Ayuntamiento, tanto presencial como telemáticamente (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).

A tal efecto, dispondrán de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio.

Problemas que se pretenden resolver con la iniciativa.

La ordenanza reguladora de la concesión de ayudas económicas para la rehabilitación de viviendas y edificios residenciales propuestos tiene por objeto subvencionar las actuaciones de accesibilidad y rehabilitación. Porque ambos hacen que una vivienda sea digna y adecuada.

En el ámbito de aplicación de la nueva ordenanza reguladora no se pretende hacer distinciones. Por ello, se incluyen dentro de su ámbito de aplicación los edificios situados en el Casco Histórico, los ámbitos que cuentan con normativa propia de rehabilitación y el resto de los no incluidos en ambos.

No obstante, se considera urgente dar prioridad a las viviendas y edificios residenciales ubicados en el Casco Viejo, principalmente por las siguientes razones:



TOLOSAKO
UDALA

tik:

- Hirigune Historikoan daudenez, monumentu-multzo direlako.
- Etxebizitza huts gehienak bertan daudelako.
- Eraikinen antzinatasunagatik egoera txarrean daudelako.
- Por su carácter de Conjunto Monumental, ya que se sitúan en el Casco Histórico.
- Por albergar la mayoría de las viviendas vacías.
- Por el mal estado en el que se encuentra, debido a la antigüedad de los edificios.

Erretengibel, S.A. Udal Sozietatea desegin eta likidatu zenetik (2018an eta 2020an, hurrenez hurren), hainbat espediente izapidetzeke geratu ziren; sozietate hori Alde Zaharrean eta Alde Zaharretik kanpo diru-laguntzak izapidetzeaz arduratzen baitzen. Hori dela eta, ordenantza arauemaile berriarekin, espediente horiek amaitzea eta aurreikusitako diru-laguntzak ematea ahalbidetu nahi da.

Araudia onartzeko beharra eta egokitasuna

Aintzat harturik aurreko atalean adierazitako beharrak eta udalerriek herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza dakarren jarduerak garatzeko duten ahala, Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Departamentuak premiazkoa ikusten du etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak egungo birgaitze-eskakizunetara egokitzea sustatzea eta bultzatzea.

Beraz, beharrezkoa zein egokia da Tolosako etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko diru laguntzak emateko ordenantza arautzailea abian jartzea.

Ordenantzaren helburuak

Ordenantzaren helburu orokorra izango litzateke etxebizitza eta bizitegi eraikinak

Desde la disolución y liquidación en 2018 y 2020, respectivamente, de la Sociedad Municipal Erretengibel, S.A., encargada de tramitar diferentes ayudas económicas tanto en el Casco Antiguo como fuera de el, quedaron pendientes de tramitación varios expedientes. Por ello, con la nueva ordenanza normativa se pretende también posibilitar la finalización de estos expedientes y la concesión de las subvenciones previstas.

Necesidad y oportunidad de su aprobación

Teniendo en cuenta las necesidades señaladas en el apartado anterior y la capacidad de los municipios para desarrollar actividades que redunden en una mejora de la calidad de vida de la ciudadanía, el Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios, Medioambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento de Tolosa considera urgente promover e impulsar la adecuación de las viviendas y edificios residenciales a las exigencias de rehabilitación existentes.

Por lo tanto, es necesario y oportuno poner en marcha una ordenanza reguladora para la concesión de subvenciones para la rehabilitación de viviendas y edificios residenciales de Tolosa.

Objetivos de la Subvención

El objetivo general de la Ordenanza sería la rehabilitación de viviendas y edificios



TOLOSAKO
UDALA

birgaitzea. Besteak beste, ondorengo lanak sustatzeko dirulaguntza programak arautzea: irisgarritasuna sustatzeko obrak, energia eraginkortasuna hobetzeko eraikinen birgaitze obrak eta EITk eskatutako presa handiko edo presazko lanak.

Azken batean, ordenantza arautzailearen helburua da hautemandako arazoak konponduko dituen tresna eraginkorra izatea.

Araudi bidezko eta araudiz besteko zer beste irtenbide izan daitezkeen

Irtenbide bakarra proposamena hau dela uste da, beraz, dirulaguntza hauek zuzendu eta arautu nahi dira.

residenciales. Entre otros, regular los programas subvencionales para el fomento de obras de accesibilidad, obras de rehabilitación de edificios para mejorar la eficiencia energética y obras muy urgentes o urgentes requeridas por la ITE.

En definitiva, la ordenanza reguladora pretende ser un instrumento eficaz que resuelva los problemas detectados.

Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Se considera que la única solución es esta propuesta, por lo que se pretende corregir y regular estas subvenciones.